

**ERREMU ZAPATUKO FERIA DELA ETA 2010EKO MARTXOAREN 27AN EUSKAL
BASERRIKO OILASKOA LABELA DUEN OILASKOA ERRE ETA SALTZEKO JARRIKO
DEN TXOSNAREN ESPLOTAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK**

1. Deialdiaren xedea

2010eko martxoaren 27an, Udalak Munibe plazan horretarako jarriko duen txosnaren esplotazioa adjudikatzea da deialdi honen xedea.

Txosna honen arrazoa da Eusko Labela duen Baserriko oilaskoa bertan erretakoa saltzea, behean aipatuko diren baldintzetan.

2. Eskaerak

Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultura edo kirol elkarteek, herri-taldeek eta ongintzako elkarteek aurkez ditzakete eskaerak.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera.

Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, eta bertan azaldu beharko da baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela.

Eskaerak aurkezteko epea **martxoaren 10ean 13:30ean** bukatuko da, eta udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira.

3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak

- a) Postuan bertan prestatutako Eusko Labela duen Baserriko oilaskoa saldu beharko da, sagardo, ardo edo/eta antzeko edariekin lagunduta. Bi produktuen prezioa gehienez ere **2 €** izango da.
- b) Goizean Udalak adieraziko dion orduan zabaldu eta eguerdiko 15:00etarako itxi beharko da.
- c) Oilaskoa pintxo edo mokadutxo moduan salduko da. Bergarako udalak oilaskoa dohain emango du eta erretzeaz Kalitate Fundazioa arduratuko da. Adjudikazio hartzaileak, edari batekin lagunduta salduko ditu pintxo erara, edariak, edalontziak etab. adjudikazio hartzailearen kontura izango delarik.
- d) Postua utzitako baldintza berdinetan bueltatu beharko da, eta egunean bertan salmenta bukatu ondoren eremu guztia eta ingurua garbi eta libre utzi beharko da.
- e) Adjudikazio-hartzaileek arduradun bat izendatu beharko dute Udalarekiko harremanetarako. Izendapen hori idatziz egin eta Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, adjudikazioaren berri jasotzen dutenetik kontatzen hasi eta 5 egun naturaleko epean.
Horrela egiten ez badute eskaera aurkeztu eta sinatu duena bera dela ulertuko du udalak
- f) Jende aurrean lan egin behar dutenek euskaraz hitz egiten jakin beharko dute.
- g) 375 €-ko fidantza jarri beharko dute.
- h) Egun horretarako behar den generoa batzeko, adjudikazio-hartzaileek bestelako behin-behineko instalazio edo eranskinik beharko balute, beren kontura muntatu eta kendu

beharko dute, eta aurrez okupazioa zelakoa izango den jakinarazi beharko dute Udalean. Instalazio hori ere postua husteko epe berean kendu beharko dute.

4. Adjudikazioa

Zozketa bidez egingo da esplotazioaren adjudikazioa, **martxoaren 11an**, 12:00etan, Udaletxeko Idazkaritzako bulegoan.

Eskaera aurkeztu dutenen artean egingo da zozketa; aurkeztu diren guztiak aterako dira eta atera ahala zerrenda egingo da.

5. Udalaren betebeharrak

Udalak Txosna eta mahaiak jarriko ditu Munibe plazan. Beste beharrik egonez gero, aurrez eskatuko zaio udalari.

6. Esplotazio-eskubidea

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du esplotazio-eskubidea beste edozein talde, elkarte eta abarri laga edo zeditu.

Interesik ez balu, 2010ko martxoaren 15a baino lehen Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko lioke, eta honek zozketan erreserbarako atera denari adjudikatuko dio.